



Delegación Provincial en Gipuzkoa  
Gipuzkoako Ordezkaritza Probintziala

**Udalaren Alkate jn/and.**

2024ko ekainaren 9an, igandea, Europar Parlamenturako Hauteskundeak egingo dira.

Hurrengo **Argibideak** bidaltzen dizkizut, zeintzuk Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan, 1991ko martxoaren 21eko Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Aginduan jasotako arauen laburpen bat diren, zeinaren bitartez administrazio-erreklamazioa egiteko prozesua hauteskunde garaian eta abenduaren 26ko 1799/2003 Errege Dekretuan arautzen den, zeinaren bitartez hautesle-zerrenden eta hautesle-eroldaren kopien edukia arautzen den.

### **Hautesle-errola ikusgai jartzea**

Indarrean dauden hautesle-zerrendak, egoiliarren errola (CER eta CERE) nahiz ez dauden egoiliarrak (CERA) kontsultatzeko zerbitzua izan behar dute Udalek apirilaren 22tik 29ra, biak barne.

Hauteskundeetarako indarrean dagoen hautesle-errola otsailaren 1ean itxitakoa da, zeinak 2024ko urtarrilaren 30era arte izandako mugimenduak jasotzen dituen jatorrizko erregistroetan.

Erakusgai jartze honen helburua hautesleek beraien datuak eroldan zuzen dauden egiaztatu ahal izatea da. Kontsulta baliabide informatikoen bitartez egin ahal izango da, aurrez interesduna identifikatuta. Kontsulta informatikoa errazteko, Hautesle-Erroldaren Bulegoak, **IDA\_CELEC** aplikazio informatikoa jartzen du Udalaren eskura.

Interesdunen identifikazioa hautesle-zerrenden kontsulta informatikoan, Udaletxeko enpleguaren aurrean, honela egingo da:

Hautesle espainiarrentzat (CER eta CERA): titularraren argazkia agertzen den NAN, pasaporte edo gida-baimena.

Batasun Europarreko herritarrentzat (CERE): pasaporte, jatorrizko bere herrialdearen nortasun agiria edo egoiliar txartela.

### **Zerrendekiko erreklamazioak Udaletxean**

Pertsona orok aurkez dezake erreklamazioa zerrendatik *baztertu* dutelako (zerrendetan ez badago edo gaizki erregistratua badago) edo zerrendan *sartu* dutelako (zerrendetan badago eta ez luke egon behar), zerrendak ikusgai dauden bitartean. Hautesleak berak edo behar bezala baimendutako pertsona batek aurkeztu eta sinatu behar du erreklamazioa, eta nortasun identifikazioaren agiriaren fotokopia erantsi behar dio.

## Udalak izapideak egitea eta Hautesle-Erroldaren Bulegora (H.E.B.) bidaltzea

Erreklamazio-inprimakiaren behealdean dagoen eginbidea bete behar du Udalak, eta bereziki zaindu behar du erroldako alta-dataren atala bertan adierazitako helbidean betetzea, Idazkariak sinatu behar duelarik, Alkatearen oniritziarekin.

Aurkeztu diren erreklamazio guztiak lehentasunez **egunez egun** bidali behar ditu Udalak telematikoki Ordezkaritzako erregistrora, erroldaren erakusketa epea bukatzean egon arte itxaron gabe. Erreklamazioak aurkeztu dituzten pertsonen zerrenda ere bidali behar da dokumentu horiekin batera. Delako epea amaituta original guztiak bidali beharko dizkiguzu. Nolanahi ere, **apirilaren 30eko 12:00ak baino lehen** iritsi behar dute hauteskunde-garaian aurkeztutako erreklamazio guztiek Ordezkaritza honetara.

## Erreklamazioak ebaztea eta jakinaraztea

H.E.B.ko Ordezkaritza Probintzialak hiru eguneko epean ebatzi behar ditu erreklamazioak, eta erreklamazioak bakoitzari nahiz dagozkien Udalei jakinaraziko die erabakia. Egin beharreko zuzenketak Erroldan txertatuko dira, eta maiatzaren 3an, ostirala plazaratuko dira ordezkaritzan. Udalak online deskargatu behar ditu zerrenda horiek IDA\_CELEC menuko Hauteskundeetako Zerrendak eta fitxategiak aukeran, **Dokumentazio mota**: Azalpen-zerrendak eta erreklamazioen ebazpenak

## Hauteslekuak eta mahaiak

Sekzio, mahai eta hauteslekuen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen da eta apirilaren 22an Udaletxean ezarriko da ikusgai herritarrentzat. Apirilaren 23tik 28ra, biak barne, hautesleek erreklamazioak aurkez ditzakete mugatze horren aurka Probintziako Hauteskunde-Batzordearen aurrean, eta batzorde horrek erabaki irmoa hartuko du 5 eguneko epean. Udalak online deskargatu behar du zerrenda hori IDA\_CELEC menuko hauteskundeetako Zerrendak eta fitxategiak aukeran, **Dokumentazio mota**: Mahai eta Hauteslekuak zerrendak aukeratuta.

## IDA\_CELEC aplikazioa

IDA\_Celec ataria hauteskunde-erroldaren datuak eta aplikazioak Hauteskunde Erroldaren Bulegoaren eta Udalen artean bitarteko telematikoen bidez trukatzeko plataforma da.

Alta emanda dauden erabiltzaileek honako prozedura hauek erabil ditzakete: indarrean dagoen erroldako inskripzio-datuak kontsultatzea, erreklamazio-inprimakia betetzea, erreklamazioak ebazteko zerrenda deskargatzea, udalerriko sekzio eta mahaien zerrenda deskargatzea, hautesleen fitxategia lortzea eta mahaietako kideen zozketa.

100 mahai edo gehiago dituen udalerrri batean zozketa ez da denbora errealean egiten, baizik eta geroratu egiten da, eta eskaerak heldutako ordenaren arabera prozesatzen dira. Aplikazioak berak dakarren erabiltzailearentzako eskuliburua arretaz irakurtzea gomendatzen da.

Udalak errolda kontsultatzeko aplikazio propioa badu, indarrean dagoen erroldako hautesleen fitxategia deskargatu ahal izango du mahaien zozketarako fitxategia deskargatzeko aukeran.

## Informazioa telefonoz eta Internet bidez

H.E.B.ak kontsulta telefono bat (900 343 232), eta Interneteko web orri bat du hauteskunde-prozesuari buruzko informazioa begiratzeko eta EINaren hasierako orritik (<https://www.ine.es>) sar daiteke bertara.

Ordezkaritza honetan (Jose M. Soroa kalea, 23; tel.: 900-343 232, 943-327680, 943-327681 eta 943-327682) atsegin handiz emango dizkizugu behar dituzun argibideak. Arren eskatzen dizut komunikazio kanal hauei ahalik eta zabalkunde gehiena eman diezaiozun.

Aldez aurretik eskertuz eskaini diguzun arreta, adeitasunez agurtzen zaitu.

Donostia, 2024ko apirilak 16.



Carlos García de Salazar Martínez  
Hautesle-Erroldaren Bulegoko Ordezkaritza Probintzialak